

Vaticanok ez du kristau euskaldunik nahi edo?

BERRIAK bata bestearen atzetik entzun nituen: Nafarroako biztanleak, urte honen hasierako erroldaren arabera, 519.000 dira. Beraietatik, euskaldunak 83.000, % 16a eta gehiago. Bigarren albisteak Nafarroako beste azpezpikua izendatu dutela zioen, Jose M. Zirardaren ordezkoa alegia: Fernando Sebastian jauna, erdalduna bera. Eta orduan gogoratu zitzaidan irakurri duzun izenburua: Vaticanok ez ote du kristau euskaldunik nahi? Gehiago xehetuz eta nabartzuz: dirudienez, kristau izateak badu axola Vaticanok, baina euskaldun izateaz ez; nolabaiteko kristautasunaz arduratzen da, ez, ordea, euskara eta euskal kulturaz.

Izendapen honetan gauzatu den jokabide okerraren nabarmentasuna leundu nahian edo, apezpiku berriak berehala euskara gramatika erosi duela erran digu Zirarda jaunak; eskolaurreko gelatan errateko ez dago gaizki, behar bada. Ondoko eguneko bilera batean apez lagunak adierazitako zuzenduko nioke artzapezpiku berriari: ez dadila elizbarrutira hurbildu euskara ikasi arte. Eta, mesedez, ez daitezela eliz gizonak hasi, aipatua gehiegikeriazko jarrera dela erraten. Irakasleak eta administralgoko funtzionariak, euskara ikasteagatik urte osoko ohizko eginbeharrak alde batera uztea aspalditik ikusten ari gara. Zergatik ez Elizan? Ez luke, bada, giza eskubideekiko

eta herri kulturarekiko sentsibilitate berezia behar, gobernuko erakundeena gainditu beharko lukeena?

Vaticanoko erakundea nolabaiteko kristautasunaz arduratzen dela erran dut. Izan ere, nahikoa bitxia da niretzat herri baten kultura aintzat hartzen ez duen kristautasunaren iduria; nahikoa bitxia, Berriona herriari eskeini nahi dion fedeak, herri horren izaera eta baloreak ez onartzea. Ez gaude kontraerranen artean?

Urrungo iturrietara jo gabe, gure elizbarrutiko dokumentua gogoraziko dut, 1974ean Mendez eta Larrauri apezpikuek argitara eman eta, azkeneko Sinodoko proposamenekin batera, Zirarda artzapezpikuak berretsi eta berrargitaratua. Bertako baiezenak ditugu honako hauek: «Nafarroan, azken aldiotan, euskerak atzeraldi kezagarria egin du... Erantzunkizuna guziona da, baita Elizarena ere, egoki jokatu beharra dugu geroari buruz». «Elizak, herrian landatu izanik herriari zor dion leialtasunagatik, aitortzen du eskubide dutela gure herriak eta herriko guziek beren hizkuntza erabiltzeko eguneroko bide bezala...; baita beren kultur aldeko zainei eusteko ere, beren izaera beraren zati berezi baitira zain hauek». «Are gehiago: gogoan izanik euskerak gure artean dituen oztopoak, Nafarroako Elizak uste du, bereziki lehiatu eta saiatu behar duela zaintzen eta

lantzen gure gizonek eta kristauak duten kultur ondasun haundi hau».

Artzapezpiku erdalduna izendatzea ez dator baiezen horien aurka? Herriarrak euskara eguneroko bide bezala erabiltzeko, lagundu egiten du izendapen honek ala eragotzi? Izendapen honek Nafarroako Elizari kultur ondasun hori zaintzen eta lantzen saiatzeko laguntzen ahal dio? Edota herriaren hizkuntza horren zapalketa eta atzerakada indartu? Niretzat, noski, ez dago zalantzarik.

Horregatik, apezpikuen dokumentuaren hariari jarraikiz, Nafarroako Apez Kontseilu nagusiak ere eskatua zuen, duela hilabete gutti, Nafarroako apezpiku berriak euskara behar zuela jakin. Antzera mintzatu zen Elizbarrutiko Pastoraliza Kontseilua, baita Nuntziolari gutuna igorri zioten hainbat Artziprestalde eta Parrokiatako kontseiluak. Ikusi duzue erantzuna.

Niretzat, dena den, oso gertakari larri eta kezagarria da gaur egun Nafarroara apezpiku erdalduna bidaltzea. Euskaldunak gain kristau ere naizelako erraten dut hori: kristauok aldarrikatzen dugun ebangelioaren aurkako aitormen garbia dela uste baitut.

PELLO APEZETXEA
APEZA

Sozialdemokrasiaren heriotza

PERESTROIKAREN prozesu luzearekin hasitako irekierak eztanda egin zuen azkenik 1989an, Berlineko harresia behera etorri zenean. Bazirudien orduan sozialismo errealearen krisiaren une beroan, sozialismoaren beste adar mendebaldetarrak, sozialdemokraziak, etorkizun polita zuela aurrera begira. Batetik, «geuk genuen arrazoiak» erako adierazpenekin ezin poza go zebiltzan, Willy Brandt edo Felipe Gonzalez bezalako soziata. Komunismoak kale egitean, uste izan zuten akaso, demonstratu zen azkenik, sozialdemokraziarena zela justizia soziala lortzeko bide zuzena. Bestetik, pentsatzekoa zen Ekialdeko Europa zabalean demokraziak sozialdemokraziaren bidea har zezakeela. Aldi berean, Internazional Sozialistarako sarrera txartela eskatu zuten ez dakigu zenbaterik, Bielorrusiatik hasi eta Italiaraino, Nikaragua eta Euskadiko Ezkerratik pasata.

Baina, urte gutxi beranduago, 1993an, Mendebaldeko Europako sozialdemokrazia krisian dago. Italia, Frantzia eta Espainiako korrupzio eskandaluek kalte egin diete PSI, PS eta PSOEri. Baina krisia ez da herrialde mediterraneoetako berotasun latinoari lotutako kontua soilik. Begiratu gorago, Erresuma Batura, Thatcherismoaren heredentzia miserablean, kontserbatzai-

leak inoiz baino zatituago, eta laboristek ezin ezer atera. Begira Suediara: Zer gertatu da han? Palme hil zutela da jakin dugun azken albisteak. Eta Alemanian ere, Willy Brandten hiletak izan dira SPDri buruz entzun dugun azkenak; hori eta Bjorn Borg edo horrelako izenen bat daukan liderra daukatela. Hegoaldeko Europako sozialdemokratak erre egin dira, eta iparraldekoak izoztu. Hori da gertatu zaiena.

Kale egin diete 89ko ilusioek. Krisi ekonomiko eta sozialak 'justizia sozialerako bide aproposenaren' ilusioa jan du. Ekialdeko Europako ez dago sozialdemokrazia-rik; demokraziarik ote dagoen ere ez dakigu barren! Zein zaila den etorkizuna asmatzea, politikan edo beste edozertan. Eta hona paradoxa: horretxegatik, hain zuzen, ez da komeni sozialdemokrasiaren heriotza azkarregi zertifikatzea. 89ko pronostikoek 93an kale egin duten bezala, berdin egin dezakete 93koek 97an. Hori ondo daki Rocardek, Big Bang horren bidez, hara-kiri egitea proposatu duenean (kontuz: bizirik segitzeko hara-kiria!).

Sozialdemokrasiaren gainbeherak (eta kalkulu okerrak) izan dezake Euskal Herriaren ere parekorik. Gogoan daukat, Juan Mari Bandresen poza eta ilusioa 1989ko azaroan Berlinetik itzuli zenean. Kasualitatez bertan zen azaroaren 9ko gauean harresia ireki zutenean. Itzuleran, Europaren

etorkizun itxaropentsuaz eta bide demokratiko eta baketsuaren beharraz mintzatu zen EEko buruzagia. Willy Brandt edo Gonzalezek bezala, «geuk genuen arrazoiak» pentsatuko zuen hartan Bandresen (eta logikoa da orduan hori pentsatzea; errelegia da orain Bandresi barre egitea, baina jar gaitezen denok orduko perspektiban). Baina, azkenean EE ere pikutara joan da, euskal sozialdemokrazia hil egin da. Goian esan dut, topiko txiki baten lizentziaz, Hegoaldeko Europako sozialdemokratak erre egin direla, eta Iparraldekoak izoztu. Zer gertatu zaie Euskal Herrikoiei? Ez erre, eta ez izoztu, gehiago gonbaratuko nuke prozesua gaisotasunen batekin. Bi pertsonalitate ezkutu zeukan gizaki eskizofrenikoa zen EE, azkenean demonstratu denez, gorputz berean elkarrekin ezin bizi zitezkeen bi izaki. Hauena bai hara-kiria, ez Rocardena. Bestetik, euskal espioitza politikoaren bufete ilunetan, komentatu izan da azken aldi honetan, beste tankera bateko saio sozialdemokrataren bat daukatela, hor nonbait, hibernatuta, Big Bang txiki batean eztanda egiteko zain. Ez ote dira ari alferrik hildakoak berpizten? Nik ez dut zombietan sinisten.


LUIS FERNANDEZ
KAZETARIA

BERRIAKZIRI



LORD SKIDELSKY
Ekonomia Politikoko irakaslea eta Keynesen biografoa
EL MUNDO

«Gobernuek esku hartu behar dute ekonomian»



JOSU ORTUONDO
Bilboko alkatea
ABC

«Administrazio bakarra eraginkorragoa litza-teke»



CARLOS ETXEBARRIA
EHUko ikasle Batzordeko burua
EL DIARIO VASCO

«EHU ez da marfilezko dorre bat, gizartearen isla zehatza baizik»



JAVIER OSES
Huescako apezpiku
NAVARRA HOY

«Ederra da Elizan joera desberdinak egotea»

ZAKILIXUT



© Olariaga